

# ZER

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

256n. zenbakia  
zemendia 2000



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



## **TRUEBA'TAR ANTON**

- ERRI-ZALEA
- ERRI-LAGUNA
- ERDERAZ IDAZLE ONA
- ALBIA BARATZEKO IRUDIA

## EUSKALERRIAN EUSKERAZ

R A Z A

# 2000-2001 IKASTURTEA

OGEI TA AMAIRUGARRENA  
BIZKAIERAZ  
IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

Orduak: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

Ordaña: 20.000 PEZETA

Izena emoteko-tokia: EUSKERAZALEAK

COLÓN DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKIÑA 423 53 22 - BILBAO

Asierea: URRILLAREN 9AN

33.<sup>2</sup> CURSO DE EUSKERA BIZKAINO  
3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES, O MARTES Y JUEVES

Horas: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

Curso completo: 20.000 PESETAS


Inscripciones: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - TELEFONO 423 53 22 - BILBAO

Comienzo: 9 DE OCTUBRE

LAGUNTZAILEA

COLABORA



**BBK**  
**Bilbao Bizkaia Kutxa**

## YON ERRAMON JOAN YAKU


Iraila'ren 21'an Bilbao Arruza'tar Yon Erramun, Aitaren egoitzara joan zan, "Euskerazaleak" en batzordeko bere lagunen artean uts bete-eziña utzirik.

1977 urtean, au da, orain 23 urte, Yon Erramun ezagutu neban "Euskerazaleak" en lendakari izendatu ninduenean batzordeko diruzaintzat lanean asi zanean, eta arrezkero buru-belarri, etenbarik, eguneroko lan neke-eziñari emon eutsan, euskerearen alde biotz-biotzez ekiñez, onen orde berarentzat laurleko bat bera be artu barik.

Mungi'ko seme jator onek euskerea bere muiñetaraiño sartuta eukan, maite-maite ebalako oroz gaiñetik. Ez dausat iñoiz be erderaz itz bat bera be entzun. Bere bizkaiera gur egiten eban, eta aibat areago "El Batuak" erriko bere euskereari ekarritako kaltea ikusten. Euskera garbiaren aldekoa zan, eta askotan berarekin niarduan, egiten dan euskera txarra zapuztuz, eta onen orde euskera jator eta egokiaren alde egiteko aleginduz.

"Euskerazaintzak" illero ospatzen dauan batzarretara bide-laguna neban, eta bidegite oneitan abagune onak izan nebazan, zelako abertzale ta euskaltzalea zan ezagutzako. Bidaldi oneitan sarri askotan edesten eustazan gure gudaren ondorioz munduan zear erabili bear izan ebazan joan-etorriak, Ameriketara batez be, laterri-arteko baltzu garrantzitsu baten jardun nagusi bat erabilenean.

Naikoa dira ogei ta iru urte alkar-lanetan, gizon bat zelakoa dan jakiteko. Egia esateko, esan bearrean naz, urte orreitan "Euskerazaleak" en ekintza guztietan, au da, urteroko Euskal Ikastaroan, "Zer" en lankidetzan, Ipuin Sariketan epailletzat, Euskal Astean Bizkaieraz, urteroko Euskal Egutegian, euskal-



tzale ospetsuai egiten geuntsezan goratzarretan, etabarreko ekintzetan, Yon Erramon lankide utseziña zan. Ordu ugari ta isillak egunero emoten ebazan gure idazteagian, oiko arazoak jagoten eta zuzentzen, eta nik esan dagiket gure erakundeak zor andia dautsala gure Yon Erramon'eri, isillik eta zarata barik bere bizitzaren zati andi bat euskereari maitasunez eskeintzeagaitik. Eta ori dana duan egin eban lan neketsuak beragan artuz, eta euskerearekiko maitasun bizia bere eragitza ta ardatza izanik.

Azken aspaldian osasunez makal egoan, baiña oi eban lez, ez eutsen "Euskerazaleak" en ardurai uko egiten, eta 93 uteko izan arren be, beti lez bere oiko jardunari ekiten eutsan. Eriotz-aurretiko azken astean, gure batzordeko batzarrean tarteko izan zan. Batzarra amaitu zanean, nire billobeai buruz itaundu eustan, eta beste billobatxu barri bat etorri yakula esan neutsanean, irribarre bataz zoriona emon eustan. Beragandik azken agurra izan zan, urrengo astean eriotzak gure artetik kendu euskalako.

Eta gaur, atsekabe larriak jota geratu gara bere lagunak eta lankideak, abertzale, euskaltzale, eta adiskide ordeztu-eziña galdu dogulako, eta idazki au berari eskeintzeko orduan, dei bat egin gura dot, bera lako zaar-saridunen bat, geugana etorri daiten, Yon Erramon'ek laga dauskun utsa betetera etorri dakigun, "Euskerazaleak" aurrera jarraitu dagian, euskeraren onerako.

Agur, Yon Erramon aztu-eziña, gure otoi-tzetan beti bizirik jarraituko dozu. Egun Andirarte.

**Zubiri'tar Iñaki**

### ZER ALDIZKARIA

**Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:  
EUSKERAZALEAK**

**BILBAO BIZKAIA KUTXA**

**Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eigu!**

**Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 3.000 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.**

**Babia aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.  
Eskerrik asko!**

<sup>N</sup>  
INOREN TXAKURRA

I

EUENIAN

Edozein, zan erribaten izean. Bertakoak ezagutuebeñean, lau urte atzerantz, txakur bat, ipuiñi eutzenari izenez "Iñoren Txakurra", ez eukenak jaberik, ez etxerik, ibilltenzana batetik-bestera, erri guztea baño, beti jateko billa; bañe bai artzen arrikak, makillasuak, ostikarak, alde guztea; entzun-alaz "madarikatu aundea", onelako itzak, Orrelan ba zarri ikustenzan Iñoren Txakurra antxintxika, bide gora-bide bera ezkututeko leku baten billa.

Bañe, orreitan, ikustenzan bibernekolurtegiaren artean zeñek eukan gogo ona edo txarra, jakiñez orreinardean danetakoak dagozela Lur-ean.

Iñoren Txakurra, ez zan aundia bae ez txikiña. Ta beren margoen ondoren ezan-leske ez zala zuria, ez baltza, ez guztiz oria baña bai margo dañoreiñ naztua, beste txakur-iren ez eukan antzerik, alde orretik zan bakarra.

Bañe, ori bai, beren aldetik zan, erriko gustien laguna. Beti aldabeinian, ipitenzan, bibernekolurtegi aldean, izandalez zarri, artzeko ostikarabat... edo zerbait txarrago.

Beinbe ez zan entzun IÑOREN TXAKURREN zaunkarik. Bustana galdueben bein euenian lo, burdibatenpeian, ta burdi a ipiñiebeiñian ibiltzen ebaieutzan beren bustana, ta orduan, entzunzen beren garraizaundiak, ume-txo batenlez negarriak. Baña an euzein burugogo gabe batzuk barrezka IÑOREN TXAKURREN garraizaitik. Baña baitabe bestebatzuk, egia ezateko, ezaneñ: "Ori ez da barreteko". Orrelan ba txakurra geratuzan bustangabe betiko.

Aiñ laguna zan biberiakolurtegiaren, baten baño geiagotan ikuzizala lo moskorren aldean. Orregaitik ezanleskezela (txakur geienak-lez), gogoonekua, gizaonekoa sala.

Bañe beinbatetik, IÑOREN TXAKUR: ondoren ez zan jakin ezer. Batzuk itauntenebeiñ: Ilgozan? Gogo-onekoe-nartean geratusan oroitzu, beren "izena" ...|zerbait...!

Ontzategitxu (Lima)

## BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

### IPUIN-SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

BILBAO  
UDALA  
AVUNATZENIE  
LAGUNZAILLE

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurtan be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

Ipuiñak asmaturikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabena ZER'en argitaratuko dira.

Saririk irabazten ez dabena be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean. Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2.<sup>a</sup> eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da, Urterillean, baita DEIA Egunkarian be al bait lasterren.

Sariak lau izango dira:

1.<sup>a</sup> 50.000 pezeta

2.<sup>a</sup> 40.000 pezeta.

3.<sup>a</sup> 30.000 pezeta.

4.<sup>a</sup> 20.000 pezeta.

5.<sup>a</sup> 10.000 pezeta.

Ipuiñak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

Epea abenduaren azkenera arte luzatzen da.

EUSKERAZALEAK

# GERNIKA'KO BATZAR-ETXEA

## ZIN-ELEIZEA



Bizkaia lurraldean Lege Zarra edo forua zin egiteko eta Batzarrak egiteko aukeratu zan tokia Andra Mari Zarra'ren zin-eleizea zan, baiña ziña beste toki batzutan be egiten zan, zin bakarra ez zalako izaten.

Eleiza au antxiñakoa da. XIII gizaldian agertzen da onen izena. Aritz aukeratuaren ondoan dago eta Zarra edo "Antigua" izena artu eban, Andra Maria'rena dan Gernika'ko eleiz barritik bereziteko. Andra Mari Zarra izena daroen Santutegiak toki askotan aurkitzen doguz Bizkaia'n.

Sarritan, egualdia txarra zalako, ezin izaten zan batzarraren egin arizpean eta aldunak eleizan batzen ziran. Ortik sortu zan gero batzarrak an egiteko oiturea.

Antxiñako baseleizeak aldakuntza asko izan ebazan gaurko Batzar-Etxe au egin baiño lenago. Eleiza au txiki geratu zan batzarrak egiteko eta ba-dakigu gizaldi batzuk dirala aundiago biurtu ebela. Ori idatzita dago.

Baseleiza zarra Mezeta'ren etxearena zan eta onek emon eutson Bizkaiko lenengo korrexidorea zan Gonzalo Moro'ri eta korrexidore onen aginduz eta bere kontura, 1.410n. urtean barriztatu egin zan eta gero antxe izan zan illobiratu korrexidorea. Gaiso-etxe bat be egin eben bertan.

Urteen joanean Bizkaiko'ren zaingo-lanak zabaltzen joiazan eta bein baiño geiagotan aldatu bear izan eben baseleiza izandako Batzar-Etxea erri guztietako ordezkariak artzeko. Esaterako Fernando Katolikuak zin egin-aurretik buru-gaiñeko apaingarria goratu egin zan eta zugazpeko zin-tokia be bai. 1565n. urtean zugatzaren ingurua, aldunak batzen ziran tokia arri landuz jantzi zan. Zin-toki orreri 1575n. urtean teillatutxu bat ipiñi aldun aukeratuak eta errietako ordezkariak euren lakuetan egon daitezcan, alkarregaz goraberarik izan barik. 1609n. urtean, etxearen egoerea txarra zalako ezin izan eben batzarra an egin eta gaur lekaima klaratarrena dan etxean egin eben. Urte beratan konpondu zan eleizea.

1826n.ean erabagi zan gaurko Batzar-Etxea egitea, Etxegiña Etxebarria'tar Antonio eta Diru-zaiña Loizaga'tar Jose M.<sup>a</sup> zirala. Lenengo agiritegia egin eban eta 1827n.'eko garagarrillaren 20'an artu eben eleiza barria egiteko erabagia. 1833n.urtean dana egoan amaituta gaur dagoan lez. Arria Oka auzoko Arbiña arrobietatik ekarri zan. Gorozika'n dago ori. 835.419 errial eta 19 marabedi kosta zan.

### Eleizea bera

Sarrera nagusia aritzaren ondotik da eta eleizpe bat dauko age bigaz, dorio-tankerakoak oneik.

Eleizearen barruko beca biribil-luzangea da, albo bitan maillak daukaz eta mailletan arrizko jesarlekuak zurez jantzita, ordezkariantzat. Berengo maillan Errialdearen Gurasoak eukezan curen jesarleku bereziak. Maillen gaiñean erriarentzat lekua dago.

Iñok ez dau ukatzen, 1366n.urtean Gernika uri biurtu baiño len, eleiza au Jaunerriko batzarrak egiteko izaten zala, baiña eleizkizunetarako be erabilten zan, bere lurretan eukan Lumo'ko Parrokiari laguntzeko. 1913n. urtera arte egin ziran an eleizkizunak. Urte orretatik 1961n. urtera arte meza bereizi batzuk baiño ez ziran egiten, esaterako uriak eta erriak bat egin ebena gogoratuz, maiatzaren 3'an, kurutze deunaren egunean, eta Berriotxoat'ar Balendin deunaren egunean. 1961n. urtean, orrilaren 3n.'ean Bizkaiko Aldundiak igande ta jai guztietan mezea ipiñi eban.

Arrinabarrezko mailla batek garoaz altarara. Altargaiñean Basterra'tar Serafin'ek eta Larrea'tar Bixente'k (biak Bilbao'tarrak) egindako iruditegi bat dago eta onen erdian dago Maria Sortzez Garbiaren irudia. Irudi onen oinpean egin ziran Bizkaia'ko Jaunerriaren azkenengo batzarrak. Irudi ederra da, ugari margotua, XIX gizaldikoa, baiña ez dakigu irudigillea nor izan zan. Izen au daroen Bizkaiko irudien artean ederrena da.

Oteundegi (sagrario)-gaiñean Berriotxoat'ar Balendin Deunaren gorpuzkiña dago.

Altara-ingurua ta batzarraren mai-burutza banatzeko errezel bat dago. Maiburutza maia ta zazpi jesarleku dira eta oneik ziran korrexidorearen eta bi aldun negusienak, beste bi rexidoreenak eta beste bi sindikoenak. Gizon onein zeregiñak jakitea ondo Ietorkigu baiña idaz-lan oneik joanean agertuko dira.

Ormearen goian ogeta sei lauki dagoz Bizkai'ko Jaunen irudiakaz. Oneik Galbarriatu'tar Sebastian'ek eta Bustrin anaiak (Txomin eta Nikola) margoztuak dira, 1664n. urtean aldundiak agindua betetuz. Arin egiñak dira aldundiak estu artu ebazalako. Lenengo Jaun Zuria'ren saillekoak, ez dira benetako jaunak, baiña or dagoz. Gero bestek. Lauki bakoitzak azpian daukoz bakoitxaren izena eta jakingarri batzuk, baiña uts asko dagoz oin orreitan edesti arloan.

Bizkai'ko Jaunen laukien gaiñean, zin egitera etorri ziran erregeen izenak aitatzen dira: Eskuma-aldean, Gaztelako Enrike IV, Fernando Katolikua, VII Karlos. Ezker-aldean, Gaztelako III Enrike, Gaztelako I Juan, Isabel Katolka deritxona. Beste sei dagoz izen barik.

Irudi orrean artean leiar margotuak, bidrierak, dagoz Adolfo Guiard bilbaotarrak 1901 margotuak. Bizkai'ko bizi-modua adierazten dabe: Edesti -aurea, nekazaritza, itxas-lana, langintza, erdi-aroko jauntxuen burrukak, itxas-bidea, salerosketa...

Altara-gaiñean beste leiar margotu bat dago. Orain-tsuagokoa da eta Bizkai'ko ikurdia gogoratzen dau.

Eleizearen erdi-erdian argi eder bat dago, brontzezkoa baiña urreztatuta, aundia eta 1869'an Montijo'ko Eugenia'k emona.

Eleizearen oiñetan lauki margotu baten aldakia dago. Lauki au 1809n.urtean egin eban Vazquez Mendieta'k eta Nieto Ulibarri'k ber-egin. Errege Katolikuari eskuan mun egitea dakar. Lauki jatorra emen egon zan 1958.urtera arte eta urte onetan Bilbao'ko Aldundira eroan eben.

Lauki onen gaiñean beste lauki mun-egille bat dago. Bizkai'ko Jaunaren aurrean zin egitea da, Ginea'tar Anselmo'rena, 1882n.urtean Erroma'n egiña.

**OLAZAR'tar Martin'ek**

---

# BURDIN-OLAK (V): ERREMENTARIAK

## (Aldaketa- Olak)■

---

Antxiñako olen ondorenak dira aldaketa-olak edo ateraten zan burdin orregaz lanabesak, izkilluak eta olakoak egitea. Eta onen ondorena geroago erradoreak edo lanerako abereai, batez bei-idi ta zaldiai, perrak edo erradurak ipinteko lekuak. Azkenengo oneik oraindiño ba-dagoz eta errementariak be bai batzuk.

Burdiñeagazko aldaketa-lan oneri buruz, asieran, auxe esan bear da: Bizkaia'n olak eta errementariak ez dirala batera joan. Erri-lagunen Alkarte Euskaldunak (Azkoitia'ko Zalduntxuak)'en saio baten auxe diño: "Aiztoak, artaziak, orratzak eta olakoak kanpotik ekarten dauskuez eta geienetan emendik eroandako burdiñeagaz egiñak dira. Emendik eroandako burdinearen eta ekarten dabenen salneuria begiratu ezker, ara zer ikusten dogun: "Geure burdiñea erosten dogula saldu dogun baiño berrogeta bederatzi bider karuago".

Emen ezarri ziran lenengo burdin-aldaketarako olak, untzeak eta aingurak egiteko izan ziran eta oneik naikoa antxiña asita saldu be egiten ziran. Langintza au indartzeko "fanderia" deritxon tramankulua ezarri zan, Barakaldo'n bat eta Zalla'n beste bat.

"Fanderia" ori ebakiña litzake, burdiñea ebagiketeko tramakulua.

### Izkillugintza:

Gaur be ba-dago Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n izkillugintza edo armeria deritxon industria eta emen saltzen da beste España guztian baiño askoz izkillu geiago. Gaur izen txarra dauka langintza onek. Zenbat gizon andra eta ume ilten geratzen diran, esaterako, emen egindako millak eta millak "persona-aurkako mina"k lertuta! Eta zenbat izkillu munduko gudetan Euskalerrian egiñak!

Gudak ugari egiten ziralako, ez jarraian baiña bai txandaka, suizkillu asko egin dira, batez be arkabuzak. Esaterako 1.505n. urtean Mazalkibir'en guda izan zanean, Ibarra'ko Pedro Ruiz eta Tolosa'ko Juan Perez izan ziran izkillu-saltzailleen bitarteako eta 112 lombarda neurri ez bardiñetakoak erosi ebezan. XVI gizaldi onen aiseran txandaka saltzen dira gure burdiñezko gaiak, itxasontzietarako kañoiak egiteko eta eskuko beste izkillu batzutara-

ko, esaterako 1596n. urtean, Leon'go Padro Ponze lur kentzailleak II Felipe erregeari eskari au egin eutsen Indietara joateko: "Bosteun arkabuz eta eun moskete Bizkai'koak, erregeak ordaintzen dauan neurrian ordainduta". Eta Bizkai'koak baiño geiago saltzen ebezan olako izkilluak giputzak.

Euskaldunak entzun eben Madrid'en emen baiño olako izkillu obeak egiten zirala eta saldu be obeto saltzen zirala, emen naiz kanpoan, eta iñoz emen izkilluak Madrid'ekoen markak ipiñi jakezan saltzeko.

II Felipe'ren aldiak izkillugin aleman bi etorri ziran eta oneik irakatsi eben emen izkilluak obeto egiten eta bide orretatik jarraitu da, gurasoak curen semeai irakatsita. Eizarako izkillu ospetsu batzuk egitea lortu zan eta ospe orrek mugak igaro ebazan. Marquart'tar Simon zan aleman baten izena eta besteara Pedro Hocés. Azkenengo oneri izen au ezarri eutsen segak eukazalako ezaugarri.

Marquart'en ikasleen artean entzutetsua da Legizamon izeneko bizkaitar bat. Onek ezaugarri lez bere izkilluetan Bizkai'ko ikurdia ipinten eban (aritzta ta otso bi). Gero Sebilla'ra joan zan bere lana egiteko.

Geroago arkabuz-egille ospetsua izan dogu Juan Fernandez. Beronen izena Joakin Zelaia zan eta VI Fernando'ren arkabuzgillea izan zan. Onen ikasle izan zan Salbador Zenarro, Barinaga'koa. Au be 1762n. urtean Erregearen arkabuzgille agertzen da.

Beste arkabuzgille ospetsu bat Bustindui'tar Agustin izan zan, Zelaia'ren ikaslea. Madri'en ikasi ondoren Eibar'era etorri zan. Emen aurkitzen dogu geroago Bustindui'tar Juan Esteban. 1791n. urtean onen izkillugintza tokira etorri zan Jovellanos eta onek aitatzen dau bere idazkietan. Bustindui'tarrak izkillugille ospetsuak izan ziran eta Santos izeneko bat, sendi orretakoa, Balentzia'n agertzen da izkillugintzan.

Ezagunak jakuz beste izkillugin euskaldun batzuk be: Aldazabal'dar Pedro Zeuta'n, geroago Bulgaria'n. Aldekoa'tar Bixente, Gabiola'tar Juan Andres, Mendizabal'dar Andrés. Guzti oneik Jovellanos'ek aitatzen dauz bere eguneroko idazkietan, baita Zarandona'tarrak, Zuloaga'tarrak eta abar. Guztiak dira Eibar'eko iskillugin ospsuak.

Izkillugintza izan zan geien zabaldu zan errementari edo burdin-aldaketa-lana, baiña beste burdin-aldaketa lanak ez eben ainbesteko ospea lortu, esaterako Bergara'n izan zan aitzogintzak. Onek Karakas'era saltzen eban baiña artu-emón orreik arin amaitu ziran, antza, beste batzuk obeagoak saltzen ziralako.

### **Ezpatagilleak**

Bizkai'ko ezpatagilleak be ospetsuak izan ziran. II Felipe'k 1577n. urteko bagillaren 1.º egunean mugazai-

ñai auxe diñotse: "Igaroketa aske izteko Antza'tar Juan eta Loba'tar Ektor'eri, Flandes'tik datozenean, amabi ezpata dakazelako, Toledo'koak eta Bilbao'koak, eurentzat.

Ezpatagiñik ospetsuenen izenak be ba-dakiguz: Atxega, Agirre'ko Ortuño eta onen etxekoak, Mentxaka ta onen senideak, Orozko'ko Pedro ta Txomin, Urriza, Beraza (oneik Toledo'n egin eben lan), Arrieta, Gaztarro, Lazareta, Mendilartza, Barsaeta, Legaretea, Garatea (oneik Bilbao'n izan ziran burdinlari).

Ba-dago XVII gizaldiko agiri bat be oso irakurgarria: Erregetxeerako egiten ziran ezpatak zegan saltzen ziran diño eta oneik aitatzen dira Bizkai'koen artean: "Bizkai'ko ezpata bakoitza, garbia, zuna, zortzi erreal; Bizkai'ko ezpata zuri arrunt bakoitza sei erreal; Bizkai'ko eta eskubiko espata garbiak amar erreal".

XVIII gizaldian gauzak asko aldatu ziran, Borbon'darrak ekarritako oiturak zirala-ta, eta espatak be kanpotik etorten asi ziran, ez lengoak lakoak eta orregaitik galdu ziran gure burdin-aldaketa edo errementari lanak.

### **Beste burdingintza-lan batzuk**

Eskatzetatik burdin-ori edo kobrezko ontziak galdu ziran eta burmezkoak sartu, marmitek, baiña lan au asi arren ez eban ondoren aundirik izan gure artean.

Beste burme edo ojalata-lan batzuk egiten ziran baiña geiago egiten ziran aingureak.

Euskalerrriaren Lagunak, Azkoitia'ko Zalduntxoak, Bolframioa asmau eben Luyar aurrerengoa zala, Bergara'ko laborategian eta gai barri au oso egokia zan errementariak ebakiñak egiteko.

**OLAZAR'tar Martin'ek**



---

**ZER**

---

Goizian goiz etxeko leioak zabaldu ta ze aize mueta artzen dabe xudurrak, zer ikusten dabe begiak, ze soiñu zarata artzen dabe belarriak... Atsedenez aurkitzen al dira zentzunak "Ta zer diño giza semearen almen nagusiak gogoak".

Bakea, anaitasuna, askatasuna nai ta kateiz beterik dagoela dirudi inguruko arnaiz aize guztia... Giza semearen bizi alderdi guztietatik, estu, inguratuta dago gizakerien ota eta larrez. Gizontasuna dalakoan on itxurazko arpegiak, norberia ta nauskeria dabiltzaz persona guztiak atsipetu nairik beti norberari begira. bizitzako zuzentasun oiñarriak gogoz zapaldurik.

Arrokeria bizitzearen ezpatea ba -da, apaltasuna biziaren ardatz joria da. Baiña giza semea apaltasun izenagaz lotsatu egiten da. Ta ortik datoz lurtean ikusten ditugun nauskeri, zapaltze, guda ta alkar ulertu eziñak.

Neuk nai dodana egin neike neure biziagaz ta ortik datoz droga, gaiso ta eriotz mingarriak. Gaiztakeria berbera, gozamina gaitik, ontzat artzen da, ta ondoren berez datoz negarra ta eriotzea. Arrokeria gaitik bestea zapaltzea ontzat artzen da ta orrek jarraian dakar gizartearen banatzea ta zori-gaiztoko burruka.

Aizea dabil munduan, besteak zapalduta ikusi ezker, poztu ta arrotu egiten daua ta orrek dakar gizartearen samina ta eriotz galgarria. Beraz arrokeria ez da berez errezoizkoa. Mindu egiten dau bizia ta personea ez da ortarako sortua. Ta giza semearen elburua da bakezko zoria, anaitasuna, bardintasun ta askatasunean oiñarriturik.

Egille baten semeak izan bere, maitasun izkuntzan oiñarrituta egon bear leuke. Ta arrokeria biziaren etsaia dala ikusi dogun ezker, apaltasunak alkatu ta zuzendu bear ditu bizitzaren al-dura ta elburuak.

Apaltasun itzaren senagaz ez zaitez bildurtu. Gure erriak seme-alaba asko izan ditu apaltasunez zuzenak eta indartsuak ta erriari bear dan argitasunezko bizia emoten alegindu izan direnak.

Apala ta totoa ez dira bardiñak. Apalak dauka beren izen ta izatea ta totoa dauka beste bere izen ta izatea. Beti ixilik egon ta arroen ta norberekoien jopu izatea ez da apalaren zeregiña. Apala beste gauza bat zuzentasunez gizartearen zeregiñak betetu nai ditua batak bestearen eskubideak ontzat arturik.

Zuzentasunaren izenean lan egin ta nekea bere lepo gain artzen dauana apala da. Au da gizadi minduak bere laguntzailetzat, egiz, artu nai dauan gizona. Arroak ez dau nai kargarik ta gitxiago, iñori laguntzeko astuntasunik, apala da iñoren izenean kargea artu ta aurrera doana. Gizon apala ez da lotsatuten anaiari laguntzen. Apalak ezin dau ikusi negarrez anaia ta zapalduta be ez bere anaien etxea...

Kristiñau legez begiraturik, Andra Maria apala izan zan Jaungoikoaren ama izatea onartuz... Ona emen, zure mirabea, egin bedi nigan zure borondatea... Ondoren eto-

ri eikiozan neke ta samin guztiekin artu eban Jesusen ama izatea. Ta guztia zan semearen bidez gizadiari bardintasuna anaitasuna ta askatasuna lortzea. Ori da andra apala. Ori da egizko bizitz oiñarria.

Nauskeri ta norberekeri barik egin bear darla egitea da apaltasuna. Euzkotar andra ta gizon zintzoak, olantxe, jokatu dabe ta apalak izateaz ez dira lotsatu. Apaltasuna, egia ta gizatasuna berez dagoz alkarrerri onginaiez, lotuta. Besarkada jakiturizkoa ta ederra da.

Ebanjelioaren apaltasuna, egite ta zuzentasun utsa danez, jopukeri ta zapaltzearen aurrez aurre egon da beti. Bakoitzak bere eginbeurrak, zentzunez, betetea apaltasuna da. Ta gizadian zergaitik baztertzen ete da egiaren indarrez zaindu nai dan apaltasun berbea.

Zentzundun persona ta kristau artean, bata besteari lagundu bear dautsela ezagutzea, ta ondoren, eginkizun ori betetutea, apaltasuna da. Apaltasun ederra da batez bere. Jaungoikoa ta lagunak bear ditugula mundu onetan ezagutzea. Norbere indar ta jakituria ez dira naiko gure izatearen bear izanei laguntzeko.

Ta ori bear dan lez ezagutu ta onartzea apaltasuna da. Gure almenak noraiño eldu leitekezan, geure Egillea ta inguruko lagunengana laguntza barik ezagutu ta onartzea apaltasuna da.

Bear izenean minberatuta dagonean, urko lagunari laguntzea, apaltasuna da, ez-eukiei bear izenean, anaiak eskeintzen dautsen laguntza onartzea maitasuna da.

Beartsuen erakunde bateko zuzendari ez-nai izateak, arrokeriaren kutsua dario, apaltasunik ez da. Iñoiz ta iñun laguntza bear ba-da, ordurretan agertzen dau gizonak urko lagunarenganako anaitasuna ta or agertuko ditu ongillezko gauzarik aundienak... maitasuna... apaltasuna ta borondate ongillea. Serbitzea da ba apaltasuna.

Norbere burua aundizat eukitea, arrokeri aundia da. Norbere burua dan baiño gitxiagotzat euki ta miñean ori, sarri, erabilteak, be, ez dau apaltasun larregirik agertzen. Gauz bi onek ertzekoia dira ta bata bestearen ikutuz, alkarren lagun egiten dira. Ez dira onek, ez ederrak, ez apalak.

Jauntxoa izan nai dauanak, bere gurarietan aize-puntuak daroaz eta ez dauka apaltasunik. Onek jendea bere inguruetatik uxatu egiten dau. Etxe, miña, mendi ta zelai beretzat nai ditu ta ingurukoak traba egiten dautsoe. Emen ez <sup>di</sup>rudi ez gizontasunik, ez anairik, ez apaltasunik.

Apala izatea zer dan jakin ta apaltasunean bizi nai dauanak, zuzentasun giroko bizitza ederra izango dau ta norberari dagokion eran bizitza egingo dau. Dan baiño ez geiagotzat ta ez gitxiagotzat bere burua artzen dauanak, zuertasun aundia dauka ta gizartearentzat izaki mesedegarria izango da. Persona apala da...

Munduko gosete, guda ta zapaltzeak zer eskatzen dabe? Arroak ala apalak zuzendu bear ditu arazo aundi onek...?

**Paulin**



## BURDIN-OLAK (IV): OLAK GALTZEN

XV gizaldian Suezia'n burdin-lanak bizitasun barria lortu eban eta Europa osoan kalte egin eutson euskaldunen burdin-saltzeari. XVI gizaldian larritasun aundia ekarri euskun bizitasun onek. Geure beste saltzera eldu ziran. Eta gizaldi onetatik aurrera, gu baiño obeak ziran ezkandinabitarrak arlo onetan, guk baiño aurrerapen aundiagoak lortu ebezalako burdingintzarako. Eta euren meategiak be gureak baiño obeak ziran, euren erreka ta zingira inguruak limonitaz betetarik egozala. Berandu ibilli ziran aberastasun oneik aurkitzean!

Gaiñera Eskandinabia'k basoak daukaz ugari eta errez botateko lakoak.

Eta, irugarren zio bat aurkitzeko, euren errekek gureak baiño urtsuagoak eta eurbera aundigokoak dira. Oraindiño beste zio bat billatzeko, ez da aitzu bearke, zura eroatea guk baiño errezago egiten dabelako. Errekak, urbide barriak eta zingirak igarobide biurtzen dira trineoentzat eta zaldiak be burdiak baño bost bider geiago eroan eikeen.

Ez dakit beste zio onek zelako indarra euki eban, baiña sasoi orretan gure oletan Ian-izteak be agertu ziran, esaterako 1499n. urtean Errege Katolikuak ola-gizonen sariak goratzeko agindua emon eban.

Beste zio txiki bat: XVI gizalditik aurrera Suezia'n eregi ziran ola barriak, ango Erregearen dirutzagaz eregi ziran, ez emen lez, ola-alkateen diruagaz.

"Osmund" izeneko burdiñea zan lurralde aretan egiten ebena, XIII gizalditik ezaguna Europa osoan eta ez zan gurea baiño ohea, baiña laster asi zan an aurrerakuntza, doiztarrena eritxon burdingintza ikasita. Burdin barri au gurea baiño karuagoa zan, baiña ohea. 1620-1650 urteen artean osoan sartu zan bide barri au, diru geiago eralgita. Diru au ez zan baserritarrena edo olagizonena, esku-zuriak eta Erregeak berak ekarri eben dirua burdingintza au indartzeko.

Munibe'tar Ramon Maria Peñafiorida'ko Kondeak 1773n. urtean egin eutson ikustaldia ango burdingintzari, Eusko-Ikaskuntzak bialduta, eta ara zer diñon: "Ango olak bakoitxa laterri edo erki bat dira, 6 edo zortzi legua daukez inguruan eta zingira biren erdian dagoz baso baltz aundiz inguratuta, orrelan ura taugarria naikoa dauke. Gaiñera bakoitzak 500 langille daukaz bere barruan".

Ori orrelan, errez ulertzen da guk astean 50 kintal ateraten doguzan artean areik 265 kintal ateratea. Gurea asieran ohea zalako saltzen zan an, baiña laster lortu eben eurak be ontasan ori. 1680n. urtean inguruko erosle guztiak eurakandu ebezan eta 1.700n. urtean Ingalterra be euren eroslerik gurena izatera eldu zan.

Eta orrelan jarraitu eben Napoleon'en aldira arte. Emendik aun-era Errusia eta Ingalterra biurtu ziran, kok gaia erabillita, burdingille nagusi.

### Ondorenak

XVIII gizaldiaren azkenean ona emen gure egoerea burdin-arloan: salketak beeratu egin ziran Suezia ta Errusia sartu ziralako eta onek gurea lako ontasuna eukan burdiñea merkeago saltzea lortu ebelako, gure oletako burdingintza atzeratuta geratu zan, an meatz obeak aurkitu ebezalako, errezago burdiñea aterateko lakoak, gozoagoak.

Egoera larri au bideratzeko ez geunkan adorerik, baiña 1848n. urtean Laba Aundi bat eregi gendun, Bolueta'ko Santa Ana, naizta batzuren ustez lenagokoa izan Guriezo'ko Laba Aundia (1830). Emendik sortu zan burdingintza Barakaldo'ra aldatu zan eta emen Karmen'ko Ama lantegia sortu eben. Ori izan zan Bizkai'ko Laba Aundien asierea.

Gure burdin-olak galtzeko beste zio bat be izan zan: Jauntxuen ardurarik eza. Onek ez eben besterik nai izaten irabaziak eskuratzea baiño. Frantze'n bertan be, Lekaide Kartujoak izan ziran burdin-lana egiten eta aurreratzen alegindu ziranak eta beste leku batzutan, esan dogun lez, esku-zuriak edo leñargiak eurak egin eben ori.

### Argitsuen gizaldia (Ilustración)

XVIII gizaldiaren azkenerantza argi barri bat agertu zan gizartean, or asi zan "argitsuen" gizaldia. Onek jakingai edo zientzien arloari emon eutsoen indarra eta langintza barriak billatu ebezan. Euskalerrian Eusko Ikaskuntzak egin eban ori. Berandu zan, gure salketa, azokak, galduta geunkazalako, eta barrero eskuratzeke erakundeak aldatu bear ziralako. Eta au ez da egiten egun batetik bestera. Baiña asi zan gure langintza aurrera egiten XIX mendearen asieran. Eta ara non 1856n. urtean Enrike Bessemer'ek asmakizun barri bat aurkeztu eban, arrabioa azero biurtzeko eta orrelan burdin-kopuru aundiak aterateko, eta merkeago gaiñera. Asmakizun onek indar aundia izan dau Bizkai'ko burdingintza-arloan. Aurrerapen onek Bizkai'ko burdiñea eban onena eta ondoren ederrak lortu ziran. Ortik lortu zan Bizkaia'k España osoan izan eban izen aundia.

Amaitzeko, jakingarri bi: Eusko Ikaskuntzakoak, naizta euskaldun lez motelak izan, laguntza aundia emon eutsoen erriari, batez be Bergara'ko Seminario'tik. Azkoitia'ko zalduntxuak txalogarriak dira.

Len gogoratu dogu Munibe Peña Florida'ko kondea laba-aundietako burdiñeak ainbesteko salketa lortu ba'eban emengo jauntxuak Madrid'en eukin indarrari zor jako, baiña zer emon bear izan eben ordez? Diruagaitik makurtu eben burua, abertsaletasun eta buru jabetza-arloan.

Azkenean, Laba Aundiak erosteko meategiak saldu ebezan eta gero Laba orreik jausi dira eta orain ez meatzik eta ez labarik. Beste bide batzuk asmau bear!

**OLAZAR'tar Martin'ek**

---

## BEGOÑA (IV): ONERASPENA

---

Gizaldien joanean, Bizkai'tarrak eta, batez be Bilbao'tarrak, Begoña'ko Ama'ri eutsoen oneraspena geituz joan da. Bizkai'tarrak izan dira legorrez eta itxasoz Ama oneganako zaletasuna munduan zabaldu dabenak.

Ona emen ezaugarri bat oneraspen au noraiño zabaldu dan adierazteko. Santutegian egiten diran ondasunenbaketak edo inbentarioak dira. Ipiñi daiguzan alkarren ondoan 1503n.urtekoa eta 1643n.'ekoa. Emoiz asko agertzen dira: edontziak, eleizjazkiak, Birjiña'rentzat jazkiak, bitxiak, zidarrezko ta koralezko agurtzak, eta batez be argi -mutillak edo moltzoak. Nondik datozen emoitzak? Bilbao'tik, Madrid'etik, Sebilla'tik, Ostende'tik eta abar. Indietatik be emoitza asko datoz. 1643n. urtean sabaitik eskegita ogeita zortzi argimoltzo agiri ziran. Orrez gaiñera, dirutan datozen emoitzak gogoratu bear dira, arduradunen ustez, "aundiak". Baita Bizkai'tik eta Aiala'tik datozen artoa ta garia, olagizonak bialtzen dabezan burdiñezko ageak. Beste ezaugarri bat, mezak esateko eskariak eta kapellautzak irastea dira. XV gizalditik aurrera asko dira izen au daroen Bizkai'ko itxas-ontziak. Ori erreze arkitu leike Bilbao'ko Kontzultxean.

Estualdi guztietan egiten jakon dei Begoña'ko Amari. Gogoratu olako egoeretan Irudia Santutegi'tik Bilbao'ra ekarten zala, esaterako 1651, 1737, 1762 eta 1775b. urteetan izan ziran urioletan.

Oneraspen au argi argertzen da eta ez Santutegiko Agirietan beste barik, Bilbao'tik igaro ziran idazle askoren liburuetan be bai. XVII gizaldian Henao aitak "Bizkai'ko Sagararioa" diñotso Begoña'ri eta XVII'ean Begoña'ren lenengo edestia idatzi eban Granda aitak auxe diño: " Bizkai'tarrak aspertu barik joaten dira euren Santutegi onetara, jaunerri guztitik asko dira eta ugariak egunero ara joaten diran taldeak, bederatzi-unenak eta oneraspenezko ekintzak sarritan egiten dabez, erromeriak be noznai ikusten dira. Oneraspen au zabaltzeko arduradunak ba-dira pizka bat nagiak baiña beti dira biziak Bizkai'tarren leialtasuna ta esker ona. Itzitasuna agertu arren beti dago bizi oneraspenaren su-garra, itzitasun orreik ezelan be amatau ezin izan dabena. Beti biztuten dira alatz aundien ar i<sup>g</sup> argi ederrak.

Frantze'tarra zan Marcillac'eko Luis'ek, 1800n. urtean esan ebana be gogoan artzeko da. Bilbao'tik igaro zan bein baten ara zer esan eban:

"Bilbao'n, uria goitik ikusten danean gaintxu baten Begoña'ko Ama'rena dan eleiza bat dago. Izena bera

dagoan erritik artzen dau. Itxaso zakarrera sartu baiño lenago ona etorten da itxaskaria, Berau da izan be mariñelen zaindaria. Otoitz laburra ta beroa egiten dautso Jesus'en Amari, ibillaldiaren estualdietan zaindu dagian. Ama onen eskuetan izten dauz emaztea ta seme-alaba maiteak. Zintzo onen otoitza aitaren egiñaz amaitzen danean, beingoan somatzen dau Ama'ren laguntza ta arriskuak alboratu dira eta kaitik urten eta laster somatzen dau bariro etxera etortearen kontzelua ta alaitasuna. Eta batera, itxasbide luzea ta neketsua egin dauan itxas-ontzi zapuztuak he, azkenengo arriskua azpiratu dau. Azkene-koa izan arren bildurgarria da: Igaro dau Portugaleta'ko barrea, arrisksua eta an beti ekaitz aundiak izaten dituan itxasoa asarrez apurtzen da are-pilloen eta atxen aurka. Ontzia sartu da ibaira. Mariñelak, ikareak eraginda, Begoña'ko Amaren eleizea ikusten dau Bilbao estaltzen daben zugutzen gaiñetik. Itzaltasunez eta esker onez, itxasoan ainbeste bider deitu dautson Amari begiratzen dautso eta berak emon dautsozala osasuna eta laster izango dauan etxeko poza ikusten dau eta belauniko jarten da. Esker onezko otoitza bizi-bizia da. Ibai ertzean Olabeaga'rako bidean dabilzanak, andra naiz gizonak, Begoña'ko Ama'ren Eleizea ikusten dan lekura eltzen diranean, arantza biurtu eta aitaren egiten dabe, aurrera jarraitzeko".

Olako zerbait gogoratzen dau andik urrean dagon tokiar "Agur Erregiña" edo "La salbe" esateak.

Antzekoa da Frantze'tar onek baiño lenago Ingalan'ar batek esan ebana: "Gauza latza eta zuzendu-bearrekoa litzake toki orretan Andra Maria'ri Agur Erregiña ez esatea bertan geldituta. Ori jzo ez daiten alboan dan idazki batek ara zer diñon: "Emen Ama Birjiñeari Agur Erregiña esaten jako".

Olan dala, iñor ez da arrituko Jaunerriko Lege Zardun agintariak enriaren barrumin au eurakandu izatea. 1672n. urtean auxe erabagi eben: "Begoña'ko Amaren irudia eta Bizkaia'ren ikurdia irarri eta alboan idazki au ipintea: Begoña'ko Amaren irudi alatz-egillearen argazkia, berau da Bizkaia Jauneri leial eta zintzoaren laguntzaille ta babesle bereizia". Eta 1735n. urtean Gernika'n izandako Batzar Nagusian erabagi eben: Begoña'ko Ama artu zaindari lez, beti izan jakon oneraspen eta itzaltasun bereizia indartzeko, Jaunerri zintzo onek beti agertu dauanari jarraituz".

**OLAZAR'tar Martin'ek**

# RAMON BARREIRO BENGEOA

## Euskal akuarelistea

**Gure inguruakaz maiteminduta dagoan margolaria. Euskal Akuarelisten Alkarteko burua. Bertoko bazkideakaz batera Euskal-erriko izena eta irudiak mundu guztian zabaltu dauz, oso era arrakastatsuan,**

**zabaltu be. Aspalditik Bakioko lagun, sarritan, udalaren arte leiaketetan epaile lanak bete izan dauz. Uda onetan, beraren akuarela gozoak ikusi aal izango doguz Kultur Etxean.**

**ZER: Aitaren laguntzeagaz oso gazte asi zintzazan margotzen. Orduko sasoiatik zer gogoratzen dozu?**

**R.B.:** Itzelezko pozagaz asi nintzan. Gure aitak marrazkien ganean asko ekian eta aolku onak emoten eustazan. Ni basora joaten nintzan, apunteak artu...

**ZER: Zergaitik akuarelea eta ez beste teknikaren bat, esate baterako, batzuentzako ball() andiagoa daukan oleoa?**

**R.B.:** Bai, balio andiagoa emoten jako, baina ez dago orretarako arrazoirik. Gauza ezbardinak dira. Akuarelea galkorra dala esaten da, baina, ondo margotuta badago, pigmento onakaz, atzealdean euskarri egokia erabilia, ezotasunik artzen ez daben kartoieta, orduan, ondo eutsiko deutso. Nik El Cairon, lau mil urteko akuarelak ikusita daukadaz.

**ZER: Baina zergaitik oleoa eta ez beste teknikearen bat?**

**R.B.:** Ba, ez dakit. Asikeran, errezago zala uste neban. Baina, gero eta geiago ikasten danean, gatxagoa dana konturatu naz. Akuarelea ezin leiteke zuzendu. Bein zeozer egin ezker. or lotzen da. Ezin leiteke kendu. Txarto ibili ezker, orria apurtu eta barrero asi bearko da. Oleoagaz ez da au jazoten.

**ZER: Beti margotzen dozu kanpoaldean?**

**R.B.:** Bai. Naturea zoragarria da. Irakasle itzela. Erabili bear diran koloreak eta giroa emoten dauz. Gure inguruneke alde ona eta txarra da argiak oso arin aldatzen dirala, eta arineketa ibili bear izaten dau norberak momentua arrapatzeko.

**ZER: Ganera, zuri guro ingurunea sano gustatzen jatzu.**

**R.B.:** Bai orixe! Emen dukaguzan inguruak zoragarriak dira. Ezagutu izan dodaz ainbat bazter emetik kanpo. baina ez dago gurearen antzekorik.

**ZER: Baina kanpoaldean, baso zabalean margotzea ez da izango erreza.**

**R.B.:** Benetan ezerosoa da, pertsona asko adi lotzen dira eta ganera otza, aizea... izaten dira.

**ZER: Noztik etorten zara Bakiora?**

**R.B.:** 30 urte inguru izango dira Bakiora etorten nazana.

**ZER: Eta zein da margotzeko geien gustatzen jatzun bazterra Bakion?**

**R.B.:** Aretzea gustatzen jat. Are bustia, olatuak... Baina jakina, orretarako egun aproposak izan bear dau. Eguraldi eguzkitsuak ez dau giro onik sortzen.

**ZER: Zure ustez, atara Ieike bizimodua gaur egun artistaren batek beraren lanari esker?**

**R.B.:** Ez da erreza. Oso ondo margotu bear dau. Bada-goz ondo bizi, fin margotu eta prezio onean saltzen daben batzuk.

**ZER: Erakusketak egiten dozuzanean, zerk zorazten zaitu?**

**R.B.:** Erakusketak prestatzea asko kostatzen jat. Interegarriak izatea gura dot, atseginak, gozoak eta gaiak ez daitezkan antzekoak izan... Eta ganera, guztick loturaren bat euki daien gura dot. 40 edo 50 koadroko erakusketea osotzeko, margoki piloa egin bear da eta gero, aukeratu egin. Atzera eta aurrera ibiltzen naz

**ZER: Eta ikusleen eritxiak? Ulertzen dogu ezer?**

**R.B.:** Geienetan ez. Oso gitxik. Ikusleak anekdotearen bila dabilz: toki au ezagutzen dabela, curen etxea ango a dala...

**ZER: Badaukazu oitura edo mania berezirik?**

**R.B.:** Ez. Dana dala, batzuetan oso polita deritxodan zeozer margotu gura izaten dot, baina benetan gatxa dana be ikuten dot. Ez da kopiatu bear zeatz-meatz ikusten dana, sentitu egin bear da. Eta gero, sentitu dana, norberarengan gelditu dana, kanpora atara. Benetan norberarena dan emoitzea.

**ZER: Zelan konpontzen zara besteek emondako zereginakaz, enkarguakaz?**

**R.B.:** Ufff...!! Batzuetan egin bear izaten dodaz, baina ez naz orren aldekoa. Nik neure gustukoa dana margotu gura dot, eta ez besteek esandakoa. Ez daust balio orosloaren arabera margotzen dauan margolariak. Nik berari, margolariari, gustatzen jakona ikusi gura dot. Benetan sentitzen dauana, adierazo gura dauana, berarengandik sortu dana...

Laukizko

## ELANTXOBE ZORRETAN DA ANDIMA'REKIN "EUSKAERAREN NAGUSITASUNA NAI DUT EUZKADI'RENTZAT"

Egoaldeko ondartzetara joateko prest nengoalarik, nere geldi-oi-dutan lasai irakurtzeko jaso nizuten, jakingarri atsegiñez mukuru, aurtemein irarri ta dendetan salgai jarritako *Andima Ibiñagabeitia'ren* gutunekin eratutako liburu berria: "*Erbestet k barne-miñez.. Gutuna . 1935-1967*". Ongi ta jator izendatutako irureuntsu orrialdez betetako eskutitz-bilduma, neronek elantxobetar idazle gailleen oni an-emen ateratako argazkiz apaindua. Patri Urkizu'ren lana, gutun on eta beiñenak jasotzearekin txo-logarria benetan.

Leenago Pako Sudupe'k argitarazitako Nemesio Etxaniz'en liburuaren parekoa auxe, Andima erbestetik eta Etxaniz apaiza Donosti'tik, idazki-bitartez elkar-jardunka, adiskide-min ezezik, gure izkuntzaren lantzaile punterengoak izatera eldu ziran. Bejondaiela Urkizu eta Sudupe'ri euren alegiña bi oien sor-gai oparotsua mamiturik, liburu biurturik ikuserazi digutelako.

Ez dago, izan ere, euskal elerti-alarra ezagutzerik, ezago sakontzerik, gure azken gudate madarikatu bitartean eta ondore deidoragarrian euren bizitz-ingurunea, "euskal antuxiñan irauli zituztenak" ezagutu gabe.

Edozeiñek pentsa dezake eunka albaindutako gutun zar batzuk, egunak eta asteak irakurtzen igarotzea nekergarri izan daitekela. Ez, ba, olakorik! "*Itsasaldeko aie ozkirria bezain atzegin z aizkit*" dio Andima'k euskal gutunak artzen dituanean, ta bestean "*gantzu biotzean*". Neri ere orixe gertatu zait.

Eskuz-esku artueman etengabean bizi izan genituan asmokide ta iztun auek: Jon Mirande Paris'tik, Jokin Zaitegi Guatemala'tik, Nemesio Etxaniz Donosti'tik, Andima an-emendik, Xanti Onaindia Larrea'tik, e.a. norbere idazkeraz eta burukeraz, zer-esan ederrez ernari. Gutunak, itz eta esaera gaxigarriz gazpipertuta, jastanta bereziz zipristinduta, euskerarentzat egiazko arrobi ta altxor dira, oietan ustu bait zuten euskeraren biziarekiko kezkek, asmo ta lanak, ilusio ta joerak, burutapen, barne-min meenak eta ustekizun barrenenak. Gogai zailleenak eta aberkoiarenak ximen eta xaloki, irritsu ere, agertzeko trebetasuna dute. Joranez eta eztitan xurgatu eta irentsi nituala esatean ez nabil oker. Aipatzen ditudan euskalari auek ezagutzeko zorrea izan nuan, bai zorte zoriontsua. Nere uste apelean, arteko yaukal eta

aillurtuena, eragillena eta pizkortzaileena Andima izan zan agian oso bertatik ezagutu nualako Paris'en lenbizi eta Caracas'en gero. Amerikar uriburu ontan ikusi nuan azkeneko aldiz nik arnaslarri, bizi-aria atezuan, Euzkadi'runtz nentorrela, eriotz atarian mundu au utzi bear izan zuanaean, 1967 gn. urtean, begi miñerituz, ezpaiñetan euskeraren aldeko itz xamur eta ederrenak bere aotik jailkitzen zizkidala.

Izan ziran bai, lendik ere gure baratza defendatuz euskerari bizi-une guztiak opetsi izan zizkietenak, nik gaingiroki aundiz-aundi ezagutzen ditudanak. Baiñan euskeraren maratillak muin-muiñetik eta ain errotik elburu ori etenik gabe itzez eta egitez, guri jarraibidea erakutsiz, gatzetandik asita kolkotan eta kolkotik kanpora batera arrotasunik gabe, sasi-apaltasunik gabe, ixuri eta beren arnas biurtu zigutenak etzait iruditzen geiegi izan diranik.

Nere gardiz ez da urte elorriotsu auetan Andima bezelako gizon langille, etorritsu, abertzale ta adoretzurik. Gexamexen su aizetu! Benetan gizabidetsua, ameslaria nai badezute ere bai, baiñan sarri gogo-giro beluna saraituz, aren ezpain eta idazki ugarietan ernemindu ta loratu zan gure etsipen leozpe kirastuan, zokoratua eta amilbera zijoan gure esaben eusko ondare aldintsua, arek Elantxobe'n amarengandik edoskia. Etzan indarkeriaz baliatu bere garraxia edatzeko, oskolpean bizitako euskaldun zabarkeriari langa jarri ta kemena, benetan barrabiltsua txertatzeko. Gure anima erdal oxiiñean eroria murgildurik bizi giñala, batzuei dana zillegi zitzaiela euskaltzaleoi aurka agiteko, euskerakiko eta Erriarekiko moldakoi edota endekaturik zertzaizkion bere jesulagun irakasle-kideak arbuia, jantzi beltzak baztatu, lan-mundura etorri eta buruan ondo errotatutako iraultza bizi bat proposatzen du adiskide zituan artean: euskeraren aldeko eta ixilpeko matxinada odolgabekoa, munduari eta danoi adieraziz sen-senan dakarkigula izan naia, bizi-naia eta iraun-naia. Etzan besoak antxumaturik egoteko sortua eta eragozpen eta sasi malkarrez inguratuta biziarren, ekin zion idaz eta ixilpeko gudari-ekintzari, polizien atzaparretatik igesi, sukarra zirakiola odolean, atzerriko beazun eta min-katza dastatu bear arteraño.

Aberrian eta aberritik at, lan aberkoi guzien gaiñetik landubea'reko asaben oiartzuna, gure euskera malgua ale-

eia, elertizkoa baiño jakintzazkoa, jakintza-egak pixkat altxatuagoak ikustea izan zan bere alegiñez ardatza.

Elebitzaren etsai amorratua zan. Euskeraren nagusitasuna lortu bearrekoa zitzaion. *"Gurea baiño izkera antzuta illagoak aunitz dabilzkigu or egalari eta aberats"*.

Olabide oentsu eta eredugarriaren antzera, beaztopo zitzaion guztia saiestuz eldu zion sustraitik eta ausarki gure izkuntza txiro-irainduari. Bilus gorrian izozten zetzan Euzkadi soraio eta indargabetuari eta Erria nola edo ala xuxpertzua naiean zebiltzan *"abertzale"* omen diralako politikariak adierazi zien euskera sendo gabe etze-goala ezer lortzerik, ez dago erri askatasuna eskuratzerik, arrotz-izkera kate itogarria eta astunegia baita. Izutzeko edo arrantzaka aritzeak eta izkilluak etzutela ezer balio. Beste edozein bizidun edo erri bezelaxe gureak azkurri elikagarri goxoa bear du. Zertarako? Irauteko! Agintari arrotz-likurren mai-gaiñetik zakurkiro botatako otapurrez ez da iñungo erririk asetzen.

Lausengu, txalo geiegiak eta liburu-izparringietan goroztutako emstak *"kokoteraño egiñik naukate"* diosku.

*"Oldarra, oldarra... orra guri palta zaiguna"* deadar dagi. Batasun geiegiak loa edatzen du, eztabaidak berriz pizkortasuna. Abertzaletasuna ez daiteke gauza geldita estatiku izan, bizia baizik.

Euskerak deitzen dion lektura egaldatu zan gure Andima zoriazeko bizimodu zaillean maiz. Eta itsaso sakonak goldatu. Diru-leiñuruak etzion biotzean zirkiñik eragiten, ez onturreak, ez berriketak eta ez beste nolanaiko jainkotxok. Bere etengabeko xede-iparra euskera zan.

Jo bear zituanak, abertzale erdalzaleak batez ere, erru-

kirik gabe eztenkatzen eta astintzen ditu. Eta ez gutxiago sator-maxialariak, maixu-aizez izkera jaso ez baiña lokatzen ari diran euskera-berrizaleak *"roman euskerazaleak"* alegia.

Urtetan eta urtetan baztartutako gure izkuntza ilortzat iñork jo etzezan erein-giro ondoko idaz-atxurlari berriak sortarazi nai ditu. Etzaio ajolarik lizunkeri-ganduak ba darabilkite ere, golde zorrotza bear bait da alor berriak okuntzatu eta luberri ta legorak iraultzeko.

Noiz zentzatu ote gera abertzaleok Euzkadi erdal-dun bat gure kalterako besterik ez dala? Euzkadi eta euskera ezerezean aienarazteko? Erdal kultura lantzeko? Buda bezela geure txilborra miresten euskera ta Euzkadi zein erderaz esateko?

Oso iguingarri ta mingarri zaio ALDERDIA-ren erdal joera. *"Abertzale aizuna, kalte iturburu, eremu sasituan betiko galduko gaituana. Alaz ere 1962'go maiatzean oso fedetsu:*

*"Betorkigu JEL'en erreñua"* aldarrikatzen du. Izan bedi gizaldi au gure etorkizunaren giltzarri".

Euskera bekigu gidari ta jomuga gaurte eta datorkigun Euzkadi burujabea.

Elantxobe'k jaso bezaio lenbailen bere merezimentuz dagokion oroitarria, jai-erri zoragarri onek iñoiz aztu ez dezan urte txar aietan euskeraren alde ainbeste saiatu zan Ibiñagabeitia'tar Andima izen-abizena zeraman bertako seme, benetan umankor eta oldartsua, euskeraren alde lan egiñik bizi eta il zala.

**EGAÑA'tar Gotzon**

## EUSKAL ASTEA

Urtero lez "Euskerazaleak alkarteak" Euskal astea eratzen dau

NON: Eskolapioen ikastetxean (Alameda de Rekalde, 19)

NOZ: Azillaren 27'tik abenduaren 1'era

**ORDU:** Arratsaldeko 8'etan

GAIA: Azillaren 27'an: Bertsolaritza-Legarreta'tarAsier'ek

Azillaren 28'an: "Bidetik amesetan" Olerki-Liburua.– Zubiri'tar Iñaki'k

Azillaren 29'an: Trueba'tar Antonio Idazlea.– Olazar'tar Martin'ek

Azillaren 30'ean: BidalQo-ikurrak euskeraz.– Atutxa'tar Paul'ek

Azillaren 1'ean: Burdin-olak.– Olazar'tar Martin'ek.

**Euskerazaleak**

## ANDRA MARI, ZEANURI'N



Aurten bere eguna ospatuz, Dagonillaren 15'an, Zeanuri'n eleizkizun ederra gertatu zan. Zer dala-ta? Euskal erri jator orretan bere parroki aundi ta ederra barriro eraiki ondoren jai ospetsua izan dalako.

Lanak, bost urte luzetan egin dira ta gogozko erri-tar batzuen lanakaz osotuta, azkenez amaitu dira konponketa guztiak. Orrelan, XVIII gizaldiko etxegintza pitxi bikain ori barriztauta ikusten dogu.

Barruko lanakaz margo guztiak euren nabarmendurak argiztatuaz goratuta geratu da guztia.

Eleizaren sarreran, aterpera sartzera konturatu giñan, antxiñan egondako burdin-"par rillea" kendu dabela ta ez da arritzekoa, tramankulu ori abereak sartu ez eitezan zan -eta; baiña gaur-egun orrelako abererik ez dabilrelako aperrikoa da orrek irautea.

Eleizan ainbat abade egon ziran eta euren artean, oker ez ba nago, Etxenagusla'tar Karmelo Gotzain laguntzaillea be izan zala uste dot. Manterola'tar Ander Zeanuritarra be ikusi ta agurtu neban eta Olazar'tar Martin zer'en zuzendaria bebai. Onelan, danon artean ospe aundia emon jakon jaiari

Eleizea benetan aundia da, baiña egun orretan ez zan naikoa ara joan ziren notin guztientzat. Abadeak batera bertsolari batzuk be egon ziran geure oitu-

ra zarrari jarraitzeko. Nortzuk ziran ez dakit, baiña bat, bere abotsagaitik, esan lei bertoko Puxana'tar Basilio ospetsua izan zala.

Kanpoan, eleizeari deusola, baratz polita bere loratxuakaz ondo jarrita. Eta guzti orreri alaitasuna emoten txistulari talde bat, neska-mutil dantzari batzukaz osotuta. Gaiñera, gura ebenentzat, gozoki batzuk be zabaldu ziran notiñen artean.

Eleiz ostean, lenagoko il-toki zarra egoan tokian, berebillak itziteko (aparkaleku) tokitxu bat geratuko da zati baten eta bestean baratz txiki bat esan daustenez. Gauza bi oneik oindiño egin barik dagoz, baiña bai asita.



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE

## BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

## ZIORTZA (V): ELEIZEA

Ederrak eder, Ziortza'n daukaguzan gauzarik ederrak eta gogoangarrienak eleizan daukaguz. Begiratu daiguzan banaka.

### Eleizpea

Eleizarra sartu baiño lenago aztertu daigun eleizpea.

XVI gizaldikoa da eta gainean teillatua dauka: zurezkoa erakundea eta oin batzuk neurritzi edo jeometri-giroko apaingarriak. Age batetik uste bako oin batek urtetan dau beerantza eta onen erpiñak pizti baten irudia dauka.

Eleizpearen barruan ate buru Nagusia daukagu, gotiku-tankerakoa dan ate eder baten inguruan. Inguru au turuta-antzekoa da eta eleizea baiño lenagokoa. XIV gizaldikoa izan daiteke. Arrokeri bako apaingarriak daukaz eta dauan edertasuna ageak eta arkuak alkarren gainean egotetik datorko eta ageen gainean age-buru ariñak dagoz.

Atearen berberaren gainean eskartzako deritxon arku dago (puntu erdia oso beeratua dauana) eta arku onen eta ate-inguru apainduaren artean tokitxu irokoi-txa agiri da, tinpano-antzerak, eta iruki onen barruan irudi irarrita: Aingeru bi turuta jotzen eta onein erdian Kristo jesarrita. Kristo'ren irudi au oso antxiñakoa da eta iru irudiak trebetasun aundi barik egiñak, erri-girokoak. Tinpanu onen gainean idazki batek Eskaltzo abata aitazten dan.

Eleizpean daukagu, baita, leio-antzeko santu-leku aundi bat, puntu-erdiko arku dauana eta barruan zurezko kurutze bat. Oin baten tinpanua dala dirudi baiña oargarriak dira dituan irudiak: Kurutzea, kaliza, liburua zabalik, makobil bi neurritziz edo jeometri-irudiz apainduak. Eta gainean beste tinpono-antzeko txikiago bat barruan mairo-iltzaille dan zaldizko Santiago dauala. Erri-giroko erti-lana dala dirudi onek be.

### Eleizearen erakundea

Sartu gaitzean barrura eta begiratu lenengo eleizea zelan egiña dan edo zelako erakundea dauan: Gotiku tankerakoa da, erri-leku bakarrekoa, eta altara-atzea poligonoa, zortzi-zokotatik iru dituala. XIV gizaldian asi ziran eleiza au egiten eta ordukoak dira altara-atzeko age-buruak, orriak eta apaingarriak. Baiña sabaian diran kirio-antzak, bai altara-gainean eta bai eleiza osoan, gero egiñak dirala dirudi. Teillatuaren astuntasuna artzeko bizkar-azur antzeko bat dauka eta astuntasuna "arbotante" deritxoen euskin bitara doa.

### Altara-atzea ta iruditegiak

Altara-inguruan iru iruditegi edo "retablo" dagoz. Erdikoa da garrantzitsuena. Plateresko-tankerakoa, 1534n. urtean asiala'ko Juan egille dala eta gero flamenkoa dan Beaugrant'eko Guiot'ek amaitua. Onenak dira ume biak eta serafin biak. Ba-dauko iruditegi onek geroagokoa, barroko-tankerako dan zati bat be, XVIII gizaldikoa. Au oin aundi bat da eta eutsi egiten dautse iruditegiari, sagraioari, ager-tokiari, Antolin eta Erroke deunen irudiai eta Andra Maria'rentzat dan obiarri.

Andra Maria'ren irudi au XIV gizaldikoa dala diñoe, naizta Mugartegi k bere liburuan XI ekoa dala esan. Iruditegi onetan 1734n. urtean ipiñi eben, orregaitik dira diran lakoak euskarria ta obia. Irudia bera jesarrita dago, altzoaren erdian umea dauala, eta umaren eskuan liburua latinez idazki au dauala: "Agur Maria, graziaz betea, Jauna da zugaz". Barrizkuntza baten "Agur Maria" bakarrik itzi eutsoen joan dan gizaldi-erdian. Ori egin ebanak berak irudia margoztu egin eban, baita inguru guztia be. Ori dana kenduko dabela uste dogu eleizea barrizatzen danean.

Beste Andra Mari bat be ba-dago. Jazokundea da, lau aingeru inguruan dituala.

Iruditegiaren goragoko maillan Kurutzeko Jesus eta kurutzearen oinuan diran Andra Maria ta Jon deuna daukaz.

Albo bietan santu bi dagoz irudizko teillatupean eta goian be, erdian, Alta Betikoaren irudia, tiara ta guzti, irukizko teillatupean.

Garrantzitsuak dira Andra Maria'ren albo bietan dagozan margozkiak. Lau margozki dira, Borgoña ko Juan n eskolakoak, goian deikundea ta ikustaldia eta beian jaiotza ta Erregeak. Ertizko lan ederrak dira oneik.

Iruditegiaren barrenak iru toki luz anga daukaz eta oneitan apostoluak urten-gitxiko esku-lanetan.

Beste iruditegi txiki biak geroagokoak dira, barroko tankerakoak, 1746n. urtean Urkitza'ko Juan lekeitia-rrak egiñak, eskoikoa Agurtzako Amarena, goian Jose deunaren margozki dala. Ezkerrekoak, ebanjelio-aldekoak, bei an Jose dunaren irudi bat dauka eta goian Sorkunde Garbiaren margozki. Iruditegi biak dira politik baiña ez dabe ondo jotzen erdikoagaz.

Altara-ingurua dana aldatzeko ustea egoan 1782n. urtean, baiña ez zan egin aldaketa au. Egiteko ziran planorik geienak ba-daukaguz: iru iruditegiak kendu, erdi-erdian tenplete bat ipiñi, gainean kupula erdi-biri

lla, Andra Maria'rentzat obi bat eta kanonikuen jesarleku eder-apainduak, eta abar. Aldakuntza ori ondo pentsatua zan liturjirako baiña egin ba'litz galtze aundi bat izango zan eleizan dan guzarik ederrena, iruditegia, kenduko ebelako.

**Olazar'tar Martin**

## BAKIO

### BERBAURREA

Errira arinago elduteko bide nagusiak zabaldu egiten deuskuez. Industrialdeetatik asago ez gaitezkan egon. Uri nagusira joan-etorri laburra egin daigun, erria toki orretatik eskurago egon daiten. Eskurago egote orrek, baina, onantzako jende olatua ekarriko deusku. Erria andiagotu egingo da, erbestetarrak ona biziten etorrita. Ori ei da gure etorkizuna!

Bakion etxehizitza erostea bape-bape merke ez dana edonork daki. Gaurtik aurrera, oraindinokarren gatxago. Ez dago bakiotarren artean abeiats askorik ez. Erbestean, oster, bat baino askoz geiago. Orreek izango dira biar-etziko bakiotar barriak. Eurrez etorri bear dabenak. aurki. Erria batetik andiagotu egingo da, bestetik utsitu. Izan be, nortzuk izango dira, bada, gaurko erriko ume-gazteen artean berton biziten lotuteko gauza? Ez ete dago edozein erriren etorkizuna beraren ume-gazteetan? Bide nagusiak zabaldu egiten deuskuez, Erria utsitu dakigun?

Iniaki MARTIARTU

∴ ∴

### ERRI BARRIAK

#### Bidegurutzaren ordez, biribilgunea Olaskoetxen

Daborduko, guztiok ikusita izango dozuen lez, Olaskoetxeko leengo bidegurutzeta kendu egin dabe biribilgunen baten mesedetan. Olan, auto erreskadak eta an egoan ikusgaxtasuna saiestuko dira, eta, ondorioz, ezbear gitxiago egotea aurreikusten da.

#### Kontuz ibili aretzan, uretara joaterakoan

Sorosleei esker jakin aal izan dogun lez, aurtongo bainu denboraldian erreskate kopurua sano andia izan da. Izan be, sorospen zerbitzuaren aurre-aurreko alderdi urkorronte andiko gunea da. Orrek makina bat arazo ekarri deutse gure segurtasunaz arduratu bear daben jagoleei. Alan da ze, kontuz ibili uretan sartukeran, eta egin jaramon sorosleek emondako aolkuei.

#### Bakioko toponimia aztergai

Batzuk onezkero jakingo dozuen lez, Bakioko Udalak, Euskera Batzordearen proposamenez, erriko toponimia aztertzeke leiaketea deitu eban maiatzean. Alan, deialdi orretara aurkeztu zan gure artean ezaguna dan Iñaki Gaminde izkuntzari eta euskaltzain urgazleak eratutako taldea. Alan bada, Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeko kide bik eta udal-batzarreko beste bik osotutako apaimahaiak oso ontzat artu eban Iñaki Gamindek erriko leku izenak batzeko egindako proposamena, eta aren zuzenda-

ritzapeko taldeari egin jako bear tekniko au bideratzeko eskabidea.

Urrian asita, gitxienez urtebete emongo dabe Bakioko jatorrizko izenak batzen. Orretarako, artxiboko lanaz ganera, adineko bakioarrakaz bearrezko berbaldiak egin bearko dabez, aalik eta informaziorik geien eskuratzeko asmoz. Ostean, informazino guztia digitalizatu eta idatzi egingo dabe. Euskaltzaindiari iru ilabeterik bein txostena aurkeztu bearko deutsoe, gure akademiak izenen era normalizatua emon daian. Ori dala eta, urritik aurrera zeuon etxeko atek zabaltzeko eskatu gura deusuegu, gure kultur ondare garrantzitsu orreri geroan be eutsi deiogun.

#### Rallyen Kopa Bakion

Bagilaren 24 eta 25ean aukera ezin ederragoa euki genduan Bakion berebil dotoreak eta ederrak ikusteko, asate baterako, Porche, Mercedes, BMW, MG, Volvo, Austin, MGB... marketako ibilgailu klasikoak. Izan be, egun orreetan Euskadiko Rallya igaro zan gure errian zear.

#### Aretzako ikurrin urdina, lau aizeetara

Aretzan ikusiko zenduen lez, Bakiok aurtan be eskuratu dau ikurrin urdina. Zazpi besterik ez dira izan sari ori lortu daben aretzak. Gure itsasbazter onen kalitatearen erakusgarri, atan be!

#### Beeko eleizea guztiz txukun

Zoritxarrez, 1999ko abenduko aizeteak kalte andia ekarri eutson beeko eleizeari. Ori dala eta, barritzatze lanak egin bear izan dira an. Orreei esker, teilatua barritu, guzurrezko sabaia kendu, ormak margotu, aldareko ormea apaindu eta sitsak jandako jesarlekuak ordeztu izan dira. Benetan, txukun-txukuna egindako bearra.

#### Dezelerakinak bide nagusian zear

Batzuon gogokoak ez badira be, argi dago ibilgailuek abiadura sano apaldu bear izan dabena erri barruan, bide nagusian i minitako dezelerakinen ondorioz. Alan da ze, emendik aurrera astiro joatea beste aukeratik ez jaku lotzen.

Ziduri

### DONIENE SUA

Doniene bezperan biztuten dan suak su magikoagaz zerikusia daukalakoan gagoz. Suaren inguruan egiten ziran guztiak gaixotasunak osatuteke, gatxak albotik uxatuteke zein magia egiteke izaten ziran. Ekanduok oraintsu artean bizi-bizirik egon dira gure Errian, antxi-



na-antxinako siniskerok kristautasunak ekarritakoakaz bat eginda, egon be. Sua izan da eta bada garbitzaile, gauza eta gatx guztien garbitzaile. Suak berotasuna dakarsku gogora. Sua eguzkiaren ezaugarria da, lurreko eguzkia, berotasuna, azken baten. Eguzkia eta sua bizi iturriak dira. Izan ete da eguzkia antxinako euskaldunen jainko nagusia? Izan ete dira euskaldunak jainko orren, eguzkiaren seme-alabak, *eguzkikoak* edo *euzkoak* deritxenak? Batek daki. Leizar abarra, eguzkilorea... be Doniene suaren inguruko magiaren artekoak baino ez dira. Urteko udaburua ospatuteko gure Erriak sortutako siniskera mardoaren ederra!

**"Doniene bagileko, gure sololan lapurrik ez, balegoz be, erre beitez".**

## DONIENE EGUNA

Bagilaren 24an Gaztelugatxerako jokera andia besteko zaarra dago Bermeon zein Bakion be. Erritarrak oinez joaten dira bertaragino ekandu zaarrari urterotero utsi guran edo. An kanpaia jotea oidalako gauzatzat artuta dago, urte orretan Donieneren bitartez suerte ohea euki edo mesederen bat lortuko dabelakoan. Batzuk mezea entzuten dagozan artean, beste batzuk, ostera, aragino igoteko egindako aalegina bardinduteko jate zein edateari bildur barik ekiten deutsee. Geienak papar-bizkarrean eskapularioak jantzita ibiltzen dira inguruan. Zelan edo alan, bakotzat beraren erara, egun orren esangureari eusten jako oraindinokarren. Erritarren biotzetan egun ori sakon-sakon sustarrak artuta dagoalako.

## SAN PELAIO EGUNA

Bagilaren 26an, urtero lez, San Pelaio eguna ospatu genduan errian, goian bertan, San Pelaio auzoan. Baseleizan mezea entzun ostean, txalapartari, bertsolari eta soinulariek ekin eutsoen bakotzak bereari. Oiko dan lez, an batutako erritarrei amaiketako ederra jaten emon eutseen. Geroago, auzokoen arteko bazkaria. Jaitxu apala besteko esanguratsua gure errian San Pelaio egunekoa!

## BAI EUSKALERRIARI

Bagilaren 23an asi tiran argazkikook BAI EUSKALERRIARI kanpainaren alde Bakion izenpetzak batuten. Aor, norbera Euskalerrikoa dala esaten da eta EUSKALERRIA bera dala norberaren erri bakarra. Euskal erritartasuna eukiteko daukaguzan eskubideak onartuteko eskatuten da. Alantxe onartu euskuzan Nazino Batuen Erakundeak (UNO) 1948. urtean, geuri zein munduko edozein erri. Giza Eskubideen Autorpen Unibertsalean, atan be.

Eskabide au UDALBILTZA erakundeari egiten jako, berak Euskalerrri osorako Euskal Nortasun Agiri Nazionala sortu daian. Erduzeizenpetuten.

**Geure berbea, geure erabagia!**

## EROANDAKO AREA DALA ETA

Bizkaiko Foru Aldundiak agindutako ikerketa eta azterketen arabera, igaz gure itsasotik kendutako are kopuruak ez ei deutso Bakioko AREAGA aretzeari kalterik eragin, orduan gure aretzatik 200.000 metro kubo are atara izan arren. Azterketok AZTI dalako fundazioak egin dauz, Aldundiak eskatuta. Aretzak neguan eta udan itxura ezbardina dauke. Orregaitik, guztira lau neurketa topografiko zein batimetroko (urpekoa) egin bear izan dabez. Ondorea: *"ezin leiteke esan, kendutako are kopurua kenduta, aretzearen morfologia aldatu danik"*. Ordurik ona Bakioko AREAGA aretzan egondako aldaketak naturalak izan ei dira, aretzearen berezko dinamikeak sortuta, atan be. Batutako informazioa ona izan arren be, aurtongo irailean zein 2002. urtean azterketak egingo dira atzera.

## MUNGIAKO SAIESBIDEA

Saiesbidea esaten jako, erri barrutik joan bearrean, erriaren kanpoaldetik doan bideari. Orixe berori zabaldu eben garagarrilaren 7an Artebakarran asi eta Atelagino doan Mungiaiko saiesbidea dalakoa. Bilbotik Bakiora 25 minutuan egiteko bestekoa. Orrek, bakiotarrentzako alde onik badauka be, beste aldetik baina urte osoan eta udan batez be, Bakiora etorriko dan au uriola ez dala makala izango ekarriko dan.

## SAN PELAIOKO BASELEIZAN IKUSTALDIAK

Bakioko Turismo Bulegoko bearginek eratuta, XII.gai-zaldian erromaniko eran egindako San Pelaio baseleizea ikusten joan gura dabenek aukerea zabalik dauke bera konpondu dabenetik aurrera. Ikustaldiak guztiz azalduak izango dira, au da, San Pelaioko baseleizearen ganeko bear diran besteko azalpenak emongo jakez a ikusten joango diranei. Orretarako gitxieneko batzuk eskatuten dabez baina, arean da, 10 lagunetik gorako taldeetan alkartu eta buruko 200 pezeta ordaindutea. Ordu erdiko ikustaldia izanten da. Inork gura badau onelango ikustaldi alzaldue-tan eskurik artu, aurretiaz Bakioko Turismo Bulegora deitu bearko dan izena emoteko. Ganera, baseleizea ikusten joan ez eze, inguruetako txakolindegietara be urreratuko dira, Bakioko txakolina agora eroaten, jakina.

# TEODORO ZUMARRAGA MURUAGA (BAKIOKO AGOAZIL ZAARRA)

**Goizero, uda ta negu, motor baltz txiki baten ganean txiri-txiri Kurtzikenetik Gure Etxearantza etorten nonor ikusten badozue, egon ziur Teodoro agoazil izandakoa dana.**

**ZER: Zure bizitza luzcan beti euki dozu agoaziltza bearra?**

**T.Z.:** Bai, zera! Ainbat lekutan egin bear izan dot bear. Aldundian bidegin, zerran, itsasoan, Ameriketara unai eta azkenengo 22 urteetan agoaziltzan.

**ZER: Ameriketara be izan zarala esan dozu?**

**T.Z.:** Ogei urtegan Aldundian sartu nintzan bidegin. Baina, Gernika erre eta frankistak sartu ziranean, andik bota ninduen. Bear bari k eta nire burua baltz ikusita, itsasoia bidea artu neban. Ilabete batzuk Pasaian igaro eta kartilea lortu nebanean, "Monte Teide" itsasontzira igon neban, itsasgizon lez. Baina Txilen geldituteko asmoz. Txilera eldu nintzanean, itsasontzia itzi eta, ingeslari antzera, bertan lotu nintzan. An be txakurrak ortozik ebiltzala-eta, Argentinara joan nintzan, ez paperik, ez inongo agiri barik.

**ZER: Ez zara makala izan, bakar-bakarrik, munduko beste alderdi ezezagun aretan bizimodua aurrera atarateko.**

**T.Z.:** An ez nekian nor eta zer nintzan. Ez neukan agiri eta. Bearra, bai lortu egin neban, unai lez basamortuan beiak jagoteko, baina. Ezin inoz urira joan, ez neukan paperik, ez dirurik eta. Argentinara lurralde aberatsa da, baina ez da izan niretzat. Egia da gaur emen esaten deustena: Amerikano. Pozik egon nintzan etxerako bidea artuteko, bear beste diru batu nebanean.

**ZER: Bakion suerte ohea izan dozu, orduan?**

**T.Z.:** Bai orixe! An lez bizi izan ezkeran, benetako Amerikak bertan dago z. Bakiora eldu ta agoaziltzan sartu nintzan, 1960. urtean. Anizeto Uriarte zan orduan alkate eta azterketa txiki bat egin ostean, bearlekua artu neban. Neure leenengo soldatea 2.800 pezetakoa izan zan.

**ZER: Orduko agoaziltzeak eta oraingoak ba ete dauke antzik?**

**T.Z.:** Orduko agoaziltzea errezagoa zan: erria jagon, urarenak konpondu, udalaren errekaduak egin. auzoetako jaietan su-ziriak bato...

**ZER: Dotorea zan orduko agoazil jantzia?**

**T.Z.:** Bakio txikia zan eta ez egoan jantzi berezirik jantzi bearrik. Uste dot, ez neukala euki be. Danok ezagututen genduan alkar eta ez egoan zertan gure artean ezberdindu bearrik.

**Teodoro Bakion jaio zan 1919. urtean. Bakioko erriko eskolan 12 urterarte ibili ostean, gau-eskolan osotu ebazan ikasketak.**

**ZER: Inor zigortu bearrik izan dozu?**

**T.Z.:** Bakion ez egoan espetxerik, eta bear be ez zan. Bein baten, jaietan edo, gazte batzuk, jaiak be bazirala-eta, astokeriaren bat egin ebe-eta. txapelokerrek udaletzeko etxepean sartu ebezan. Txapelokerrek anka egin, ate zaarra zabalik itzi neutsen, mozkortxua pasatutakoan, etxera bake-bakean joan zedizan.

**ZER: Zenbat urtegan jubilatuta zintzazan?**

**T.Z.:** Irurogeita bost urtegan, orain dala amabost urte. gaur egun, Bakion bizi naz, Kurtzikene baserrian, pozik, Vanera. Egia da Iparagin-eren abesti zaaiTak dinona:

"Gazte gaztetatikan, erritik kanpora,  
estranjeri aldean pasa det denbora.  
Errialde guzietan toki onak badira,  
baina biotzak dio: zoaz Euskalerrira".

Euskalerrira lango erririk ez dago munduan. Jendea obeto bizi danik. ez beintzat. Eta Euskalerrian, barriz, nagusi Bakio. Amerikak emen, ez an.

Jon Aingeru GOIKOETXEA

## Berbalapikoa

<b>agoazil</b>	udaltzain, txinel.
<b>jezan</b>	ebazan, zituan. (Bakioko aditz zaarra) ( <i>dxeszir</i> ).
<b>bidegin</b>	kamineru.
<b>soldaduzka</b>	soldadutza (Bakioko berbea).
<b>Aldundia</b>	Diputazioa.
<b>una;</b>	beiak jagoten dauzana.
<b>txiro</b>	beartsu, ezeuki.
<b>ineslari</b>	ines egin bear izaten dauana. (Bakio berbea).
<b>agiri</b>	dokumentazioa.
<b>azterketa</b>	etsamina.
<b>su-ziri</b>	bolandera, txapligu.
<b>espetxe</b>	kartzela.
<b>txapeloker</b>	;goardia zibil.
<b>jeen</b>	ebn. (Bakioko aditz zaarra) ( <i>dxien</i> ).
<b>jeezan</b>	ebazan, zituan. (Bakioko aditz zaarra) ( <i>d.cies(,,r)</i> ).
<b>zedizan</b>	eitezana. (Bakioko aditz zaarra) ( <i>sed ls('i)</i> ).

# JOSE MARIA GONZÁLEZ-PINTOGAZ

## BERBETAN

**Biar-etzi gure erria urigintzako ikuspuntuaren aldetik zelan egituratu leiteken azaltzen dauan alkarrizketa interesgarria egin deutso Itxaso Urazurrutiak José María González-Pinto Bakioko aran subsidiarioen edo osaga-**

**ZER: Zergaitik sortu zan aran susidiarioak birrikusteko asmoa?**

**J.M.G.P.:** Oinarrian, urigintzako aurreko plangintzeak balio ez ebalako. Sano zaartuta egoan. Birrikustea bear-bearezkoa zan, arauak egin ziranean, ekonomia zein gizarte arloko egoera ezbardina zalako gaurkoaren aldean. Ganera, plangintza estrategikoa bideratu bear zan.

**ZER: Babes ofizialeko zenbat etxebizitza eregiko dira? Non kokatu eta zein epean amaituko dira?**

**J.M.G.P.:** Guztira, babes ofizialeko 98 txebizitza aurreikusita daukaguz. Errenteria, Solozarre eta Eleizaldeko guneetan egingo litzakez. Emendik urtebete edo urte bira ekingo litzakio eregiteari Solozarreko gunean. Andik aurrera, leenengoak 8 ilabete edo urtebeteko epean amaituko litzakez.

**ZER: Zeintzuk ezaugarri eukiko dabez etxebizitza orreek?**

**J.M.G.P.:** Neurriak familia programearen arabera izango dira. Geienez be, 90 m.' erabilgarrikoak izango dira. Orokorrean, etxe kolektiboak izango dira, baina alkarrerit deutoelako etxebizitzak egiteko aukerea egon leiteke.

**ZER: Salneurria zeaztu leiteke?**

**J.M.G.P.:** Apur gorabeera 150.000 pezeta m.' baktzeko. Au da, 90 m.'ko etxebizitzaek 14 milioi balio izango leuke eta 60 m.'koak 9 milioi, apur gorabeera. Ori bai, dana aldutuko da modulu eta eregiteko sasoiaren arabera.

**ZER: Etxebizitzen eskaintza pribatuari jagokonez, zenbat etxebizitza eregiko dira? Non kokatu eta zein epean amaituko dira?**

**J.M.G.P.:** Guztira 774 izango litzakez eta oreetatik 500 edo 600 egingo litzakez 8 urteko epean, orixe da-eta arau subsidiarioen indarraldia. Olan, biztanleen kopurua 2.000 lagun inguruan anditu leiteke. Era berean, neurri txikiko jarduketak daukaguz erriko uri orube guztian barrena. Dana dala, jarduketarik garrantzizkoenak Areaga, Errenteria eta Oia inguruetan izango dira, azken au epe luzeago baten egiteko bada be.

**ZER: Zelango ezaugarriak eukiko dabez etxebizitza orreek?**

**J.M.G.P.:** Euneko 60 inguru dentsitate txikiko etxebizitzak izango litzakez: bizitza batekoak, bizitza bikoak edo alkarrerit deutoelakoak. Dentsitate txikiko etxebizitzak uri ingurunean integratzeko aukera gitxiago emoten dau. Dana dala, orrek languduko dau Bakiora biztanleak modu iraunko-

**rrien egileari. Alan bada, berbaldi orren laburpena ekarri dogu "ZER" onetara, gaiak Bakioko urigintza paisaiari, etorkizuneko erri egitureari bete-betean eragiten deutoelako. Ona emen, bada, esandakoa.**

rean bertoratzen. Edozelan be, zeaztu doguzan elburuetariko bat da leenengo egoitzako etxebizitzak izatea, au da, kalitatezkoak eta urte osoan bizi izateko erakoak.

**ZER: Bakeako eremuari jagokonez, zelan eratuko da gune ori?**

**J.M.G.P.:** Erreka nagusiari lotutako bedargune zabala euki bearko leuke. Olan, errekearen ondoko ibiltokia, bidegorria eta inguruan astialdiko jardueraren bat aalbideratuko dauan urtoki txiki bat egin leitekez.

Bakea (Solozarregaz batera) Bakioko astialdirako bedargunerik andiena izango litzake, beti be, errekeari lotua. Alan da ze, aretzearen astialdirako alternatibatzat artu leiteke.

**ZER: Golf zelaia egin ezkeru, zeintzuk alde on ekarriko deutsez bakiotarrei?**

**J.M.G.P.:** Leenengoz, bakiotarrei ondo etorriko jake urigintzako kalitatearen ikuspuntuaren aldetik. Bigarrenez, Bakiok kanpoan eukiko dauan balorazinoa andiagooa izango da. Eta, azkenik, golf zelai publikooa izango dan lez, oraintsu arte egon ez dan astialdiko eskaintzeagaz gozatzeko aukerea emongo deutse.


Beste alde batetik, zelaia egiteak balio andiagoo emongo deutso udalerrit guztiari eta, batez be, inguru orretako etxebizitzei. Ganera, tarteko epean bestelango eraginak sortuko dauz, au da, zelaiaren inguruan eratuko diran eraikuntza eta zerbitzuen jarduera ekonomikooa, lanpostuak eta ingurumen kalitate andiagoo sortzea ekarriko dabe. Ori guztiori, daborduko, itsas ibiltokiko jarduketeagaz jazo da. Izan be, etxe komunitateek pentsatu dabe egoera barriaren arabera jokatu eta fatxadak barritu bear dirala. Azkenean, inork ez dau atzean lotu gura eta erria osotasunean obaturko da.

**ZER: Non kokatuko da industria gunea?**

**J.M.G.P.:** Artza aldean. Eremu bi daukaguz: bata, 28.000 m.'koa, gasolindegia artzen dauana; eta bestea, 26.000 m.'koa, gasolindegitik aurrera Mungiarako norabidean.

**eremu orretan?**


**J.M.G.P.:** Kutsagarriak ez diran industriak, aukeren txortabala izanda, arautegian ezarrita dago-eta, ezartzeko diran jarduerak ez dabela ingurumenaren aldetiko kalterik sortu bear, eta berori leentasunezko elburua izango da. Ganera, erriko jarduera ekonomikooa dibertsifikatu aal izango da.



**EUSKERAZALEAK**

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.  
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



## BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konpromezutzat artuten dogu, geure erri onen arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik lagunduten deutsegu gogo osoz, geure nortasun berezia indartuten deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten deusagu, kultur adierazpenen artean, gure ezaugarririk gorena dan euskerearen garapenari.

**EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK**



**BBK**  
Bilbao Bizkaia Kutxa